

## 5. LURRA ZATITZEKO, BANANTZEKO EDO ELKARTZEKO BAIMENA

Espediente kodea: LZBA

### Zer da? Zertarako da?

Edozein lurzoru motatan kokatuta dauden finkak (lur-zatiak, orubeak, eraikinak, etxe bizitzak edo lokalak) zatitzearekin, lurzatietan banatzearekin, elkartzearekin eta abarrekin loturiko guztiak.

### Nork eska dezake?

Lurra zatitzea, banatzea edo elkartzea nahi duen pertsonak, haren legezko ordezkariak, edo bere izenean aurkezten duenak eskaera.

### Aurkeztu beharreko agiriak

- 1 Finkak banantzeko edo elkartzeko lizentziaren eskaera Hernaniko Udalak eskaintzen duen [inprimaki normalizatua](#).
- 2 Eskaeraren xedea azaltzen duen eta hasierako finka edo finkak (horien katastro-identifikazioa ere barne), baita proposatutako jardueratik ondorioztatu direnak ere, deskribatzen dituen memoria. Halaber, jarduera hori planeamenduko zehaztapenetara eta indarrean dauden hirigin tza-legeriara eta sektoreko legeriara egoki tzen dela justifikatu behar da.
- 3 Jabetza Erregistroaren ziurtagiria, eta bertan, jarduerak eragindako finka guztien deskribapena, horien inskripzioaren funtsezko datuak, titulartasuna eta kargen egoera jaso behar da.

Baserrin bati edo lurzoru ez-hiritargarrian kokatutako eraikin bati lotutako lur-zatiak baldin badira, ziurtagiri horrek eraikin horren jabetza guztiei buruzkoa izan behar du.

Erregistro-datuak zorrotasunez egokitu behar zaizkie dauden benetako egoerei, eta horretarako, bat ez etor tzeak edo akatsak baldin badaude, gertaera horien aurreko egoerara moldatu behar dira, hipoteka-legerian aurreikusitako prozedurari jarraiki.

4. Finkak banantzeko edo elkartzeko eskrituraren Minutaren kopia, eta horren testuan, beste gauza batzuen artean, kontuan hartuko dira finkei aplikagarri zaizkien zehaztapenak, erabilera edo eraikin jakin batzuei atxi kita geratze ari buruz, edo gutxieneko azalera bete tze ari buruz, edo horien zatiketa edo elkarketarekin loturiko beste murrizpen batzuei buruz.

5. Planoa edo kokapenaren krokisa, 1/500 baino txikiagoa izango ez den eskala batean, baldin eta lurzoru hiritarrean edo hiritargarrian koka tzen bada, eta 1/5000 baino txikiagoa ez den batean, lurzoru ez-hiritargarrian kokatzen bada.

6. Lur-zatien planoak, 1/500 baino txikiagoa den eskala batean, finken egungo mugak eta horien azalera grafiatuta ageri direla, eta halaber, identifikatuta geratuko dira lur-zati mugakideetako jabeen izenak.

7. Tasa ordaindu delaren agiria

Ezinbestekoa den dokumentazioa aurkezten ez bada, [dokumentazio osagarriaren errekerimendua](#) aurkeztuko da, bertako datuak beteta eta dokumentazioa atxikituta

### Nola eskatzen da?

**Aurrez aurre:** hhz-Herritarren Harrera Zerbitzuan (Udaletxeko beheko solairuan). Astelehen, asteazken eta ostiralean : **08:00 – 14:00**.

Astearte eta ostegunetan **08:00-18:30**

Uztaila eta Abuztuan astelehenetik ostiralera **08:00-14:00**

**Telefonoa:** ezin da telefonoz eskatu. Dena den informazio gehiago eska dezakezu, edo eskaera eta informazio-orria etxera bidaliko dizkizugu, **943 337000** telefonora deituz.

**Internet:** udalaren [www.hernani.eus](http://www.hernani.eus) web orriko egoitza elektronikoan

**Posta arrunta:** ezin da postaz eskatu



## Zenbat kostatzen da?

**Tasa:** Hirigintzako lizentziak emateagatik:  
236,25 €

## Prozeduraren epea

**Udalak LURRA ZATITZEKO, BANANTZEKO edo ELKARTZEKO baimenak eskatzen den dokumentazio guztia onartu eta gero bi hilabete ditu ebazteko.**

Lizentzia eman egin dela iritziko zaio, baldin eta eskaera aurkeztu ondoren ebazteko dagoen gehieneko epea inolako ebazpenik jakinarazi gabe igarotzen bada.

Inola ere ez da bereganatuko -ezta aldeko administrazio-isiltasuna dagoenean ere- hirigintzako antolamenduarekin edo indarrean dagoen legeriarekin bat ez datorren eskumen eta eskubiderik.

## Tramitatzekeo ardura duen udal saila

Hirigintza eta Ingurumen saila

- Informazio gehiago: 943 337000 edo [hhz@hernani.eus](mailto:hhz@hernani.eus)

## Zer egin behar da baimena lortu eta gero?

Udalaren iritziz, lizentzia emateko orduan ezartzea komenigarria edo beharrezkoa izan daitekeen beste baldintza batzuk alde batera utziz, erabakia jakinarazten den egunetik kontaktzen hasita hilabete batetik (1) gorakoa izango ez den epe batean, izapidetutako U-7 inprimakiaren kopia bat (Ondasun Higiezinaren Errolda aldatzea) eta udal baimenaren xede den jarduerari dagokion notariotzako eskritura aurkeztera behartuta egongo da.

## Araudi aplikagarria

- *X. Titulua: Hernaniko Udalaren hirigintza-lizentziak nola eskatu, nola izapidetu eta horien exekuzioa nola kontrolatu behar den arautzen duen ordenantza (2014ko azaroak 28ko GAO, 248 zk.)*
- *Hernaniko Udaleko Ordenantza Fiskala*

